

## Sei bertsolari gaur Sandiusterrin, Bertso Latako jaialdi nagusian

■ Joxe Agirre, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Estitxu Eizagirre, Iker Osa eta Unai Iturriaga ariko dira  
■ Jaialdia 19:30ak inguruan hasiko da (lauterdiko pelota finala bukatzean).

URTEKO bertso jaialdi nagusia gaur da Hernanin, Bertso Latako ekitaldien barruan. Joxe Agirre azpeitiarra, Unai Iturriaga durangarra, Aitor Mendiluze andoaindarra eta Maialen Lujanbio, Estitxu Eizagirre eta Iker Osa herniarrek kantatuko dute, arratsaldeko 19:30etan aurrera (lauterdiko pelota finalaren ondorenean). Jaialdia aurkezten Ibon Miner ereñotzuarrar ariko da.

### Bertso ekitaldiak aste guztian zehar

Bertso Latako ekitaldiak aste guztian zehar izango dira. Gaurko jaialdiaz gain, asteartean Karidadeko Benta taldearen kontzertua izango da, 20:00etan Biterin. Jon Maia bertsolariak eta gainerako taldeek Amore Amore diskoa aurkeztuko dute Hernanin. Asteazkenean, txapelketa azkarra egingo dute bertso eskolako kideek Hernanin barrena. Ostegunean bertso jarri afaria dago Zumardi jatetxeen. Garai bateko bertso jarriak eta gaur egunekoak tartekatuko dituzte, musikaz lagunduta. Afaria 20:30etan hasiko da eta txartelak



Joxe Agirre bertsolaria Hernanin izango da gaur.

salgai daude dagoneko Kitto, Aralar eta Irrintzi tabernetan, 20 eurotan. Igande eguerdi aldera, berriz, kale antzerkia egingo dute Bertso eskolako kideek, baina, ez dute argitu

nahi izan nola eta non.

**Urte Zaharretako erronda**  
Urte Zaharretako errondak ere ez du hutsik egingo aurten, eta azken urte askoan

### Egitaraua

**Gaur, abenduak 26**  
Bertso jaialdia, 19:30etan Sandiusterrin.

**Astearte, abenduak 28**  
Karidadeko Benta, 20:00etan Biterin.

**Asteazkena, abenduak 29**  
Txapelketa azkarra, 19:00etan kalean barrena.

**Osteguna, abenduak 30**  
Bertso jarri afaria, 20:30etan Zumardi jatetxeen.

**Ostirala, abenduak 31**  
Urte zaharretako erronda (Zita:17:00etan arkueetan).

**Igandea, urtarrilak 2**  
Kale antzerkia, 12:00etan kalean.

### Txitulari Bandaren kontzertua gaur arkueetan

TXISTULARI Bandak urteko azkeneko kontzertua emango du gaur Udaletxeko arkueetan, eguerdiko 13:00etan hasita. □

### Asier Blas hernaniarrak 'Atzoko eta gaurko harresiak' liburua aurkeztuko du

ASIER Blas hernaniarrak Atzoko eta gaurko harresiak liburua aterri berri du eta datorren asteartean aurkeztuko du, Donostiako Bilitx liburudandan, goizeko 11:30etan. □

### Eguberritako kontzertua Chillida-Lekun, datorren ostegunean

JOSEERA Senperena piano jolea, Piter Ansorena txistu eta danbolin jolea, Andoni Egaña bertsolaria, Kirmen Uribe idazlea eta Jon Maia dantzariak emango dute kontzertua datorren ostegunean Chillida-Lekun, arratsaldeko 19:30etan aurrera. Musika klasiiko, garaikide eta herrikoia uztartuko ditu kontzertu honek. □

### Komertzio justua' irekita gaurtik asteazkenera

KOMERTZIO justua denda ireki dute gaurtik asteazkenera, Kale Nagusian, Kixkal tabernaren ondoan. Denda honen helburua da garapen bidean dauden herrietako produktuak prezio justuan saltzea eta irabaziak ahalik eta bitartekari gutxiengos eskutatik pasata iristea bertara. Artisautza, janaria eta denetatik egongo da dendaran. Gaur 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da irekita eta gainerako egunetan 10:00etatik 13:00etara. □

## Ur Festa erraldoia bihar igerilekuuan

■ Goizeko 10:00etatik 13:00etara izango da igerileku haundian eta 10:00etatik 12:00etara igerileku txikian ■ Ur jolasak irekiak dira, 4-12 urte arteko umeentzat.

UR festa erraldoia antolatu dute bihar, astelehena, kiroldegiko igerilekuuan, 4-12 urte bitarteko umeentzat. Norma-

lean ur ludotekan izaten den materialaz gain, puzgarri erraldoiak dituzte jartzekoak. Festa goizeko 10:00etatik

13:00etara izango da igerileku haundian eta 10:00etatik 12:00etara igerileku txikian izango da.

Ur jolasak direla eta, goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara itxita egongo da piszina erabiltaileentzat. □

### Antziola-Motor

Salmenta eta trailer zerbitzua



#### Ford Focus C-MAX



Ford Focus, familiako kide berria

Ford antziolatik, Eguberri jai zoriontsuak eta urte berri on opa dizuegu, hernaniar guztioi!

ANTZIOLA AUZOA 12 - HERNANI - TEL.: 943 55 57 72

ORDUTEGIA: ASTEAN 9-13 ETA 16-20 - LARUNBATETAN 10-13

### Jatetxea

Venta Berri



Arano - Nafarroa  
(948) 51 40 18  
Larunbatetan itxia



### SANTA BARBARA

PEUGEOT ④ 943 551139 / 943 551979

Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Aranzazu 15




- ✓ PEUGEOT 307 Break
- ✓ PEUGEOT 306
- ✓ PEUGEOT 406
- ✓ PEUGEOT 306
- ✓ PEUGEOT PARTNER
- ✓ CITROEN BERLINGO
- ✓ SAAB COUPE
- ✓ SEAT IBIZA
- ✓ CITROEN JUMPER furgoa
- ✓ FIAT UNO
- ✓ FORD SCORT

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzetan ditugu  
LARUNBAT GOIZETANIREKITA DAGO

HDI 136 zaldi KM 0	18.600 €
XSDT turbo diesel, 8 urte	4.500 €
SS-AV	3.900 €
SS-AV, 1.4 gasolina	3.000 €
5 urte	6.000 €
4 urte, aire egokitua	7.800 €
1997 urteko, aire egokitua	4.800 €
7 urte, diesel	3.900 €
8 urte, 2.5 diesel	3.000 €
7 urte, diesel	2.885 €
SS-AV, diesel	2.700 €

## PELOTA



Mendizabal eta Diaz, Zabala prestatzailearekin, finalerako pelota aukeraketan, Zarautzen.

## Mendizabal-Diazek DVko finala, gaur

Berasaluze-Apraizen kontra jokatuko dute, Zarautzen, 11:00etan.

OIER Mendizabal hernania-rrak eta Iñigo Diazek DV Torneoko finala jokatuko dute gaur Zarautzen. Berasaluze eta Apraiz izango dituzte kontrario, eta Zarauzko Arizbalde frontoian jokatuko dute

11:00etatik aurrera. Ostegunean egin zuten pelota aukeraketa eta hernaniarra pozik zeoen materialarekin. Bestalde, eskua zen Mendizabalen kezka azken egunetan ikututa eduki duelako. Zorionez, atzelari

hernaniarrak Kronikari egin-dako hitzetan adierazi du esku erabat osatu zaiola eta azken entrenamenduetan oso gustora sentitu dela. Beraz finala tope-topean jokatzeko moduan izango da. □

## Udalbiltzak hileko azken larunbatean egingo du EHNA Hernanin



Udalbiltzak Hernanin 2.000 lagunetara iristea nahi du EHNA.

UDALBILTZAK Euskal Herriko Naziotasun Agiria (EHNA) tramitatzeko aukera jarriko du hilero, hileko azken larunbatean. EHNA Biterin egingo dute, 10:00etatik 13:00etara. "Honela herrian ahalik eta EHNA gehienetan lortzeko bidean bitarteko sendo bat jartzen dugu" esan du Udalbiltzak. Erakunde horren hitzetan, "EHNA egiten duen herritarra libreki atxikitzen da Euskal Herrira" eta euskaldun bezala eta nazio bateko kide bezala libre determinatzako esku-bidea aldarrikatzen du. □

**Allianz**  
ASEGURUA  
Agustin Ezponda  
AGENTZIA  
Telf.: 943 557 326  
656 735 109

**ARALAR**  
TABERNA  
GIRO EDERRA  
ETOR ZAITEZ  
ZAPA KALEA 8 - ☎ 943 33 15 06

**JOMXA**  
EDARITZEGIA  
Kale Nagusia, 7  
☎ 55 00 32  
HERNANI

**LEOKA TABERNA**  
Kardaberaz 3, HERNANI  
EUSKAL PRESOAK  
EUSKAL HERRIA  
Eguberri jai  
zoriontsuak  
opa dizkizuegu!

**YGALDETXO**  
Jatetxea  
Bazkariak eta Afariak  
Ereñozu auzoa  
Tel.: 943 550240  
20120 Hernani (Gipuzkoa)

## ■ ERREMONTEA - BI BITAKO TXAPELKETA

### Altuna II-Etxabek aise irabazi zuten

EZ zen kolorerik izan ostiralean Galarretan jokatutako partiduan eta Altuna II-Etxabek lehen pausoak eman zuten Faustino torneo-ko finalean sartzeko, Ezkurra-Badiolari 17-40 irabazita. Ezkurra ez zen beste egun batzuetakoa izan eta pattal aritu zen. □

## ZINEA BITERIN

### 'Bailamos' eta 'Glup' gaur

Gaztetxoentzat *Glup* pelikula botako dute gaur Biterin, 17:00etan eta helduentzat *Bailamos*, 19:30etan. □

## GALDUTAKOAK

### Bi setter ingles galdu dira Akola inguruan

Bi setter ingles galdu ziren herenegun Akola inguruan. Zerbait dakienak deitu: 943 552491 edo 635 716102.

### JOXE IGARRITZ ETXEBERRIA

Atzo hil zen Hernanin

*Urak dakarrena urak darama  
zuk emandakoa  
gurekin gelditzen da*

*Zure alaba Mari Joseren lankideak  
(Hernaniko Udaltzaingoa)*

Hernanin, 2004ko irailaren 4an

## ZERBITZUAK

### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalarri anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

### FARMAZIAK

- Egunez: Bulnes  
Florida auzoa  
☎ 943 557738
- Gauzez: Diaz  
Andoain. Nagusia 19  
☎ 943 592057

### IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Oarso kalean. Deitu telefono honetara: 660 77 91 60

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia, ...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Emakume batek pisua behar du alokairuan Hernanin. 690 39 45 01

VITAL KUTXA. 70 plaza libre. Laster hasteko. Matrikula zabalik. Doako informazioa. 943 43 41 27.

HAUR HEZIKETA. Haurtzandegi publiko eta haur eskolatan plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

TXOFERRAK. Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzan laster hasteko. Doako informazioa. 943 43 41 27.

SUKALDE LAGUNTZAILEAK. Eskola, erresidentzia eta Eusko Jaurlaritzan plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA. Udaletan laster hasteko: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrala, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Doako informazioa. 943 43 41 27.

PEOIKA, elektrizistikak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Erakunde publikoetan plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

UDALTZAINAK. 25 plaza bete behar dira: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Doako informazioa. 943 43 41 27.

LABORATEGIA. Teknikariak, auxiliarrak. Plaza libreak Udaletan, Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

HAURTZAINDEGI PUBLIKOAK. Plaza libreak, zaintzaileentzat. Postu libreak eskola publikoetan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

BASOZAINA, Udaletxe, Foru Aldundi eta Administrazio publikoan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

Eguberri jai

zoriontsuak

opa dizkizuegu

eta urte berri on!



HERNANI  
BIDAIAK

hernanib@teleline.es  
Urbieta, 6 - 20120 HERNANI

943 33 00 49 / 943 33 01 74